



## Lurraren Jaun eta Jabeak

Mozanbikeko Lurrak Arpilatze Fenomenoaren Aurretiazko Azterketa  
Nekazarien Batasun Nazionala  
MAPUTO, MOZANBIKE









# aurkibidea

- 4 Lurraren Jaun eta Jabeak
- 8 Testuingurua
- 14 Ondorioak





## Lurraren Jaun eta Jabeak

UNACeko Dossieraren laburpena "Os Senhores da Terra"<sup>1</sup>

(originala: <http://www.derechoshumanosdelcampesinado.org/>, Materiales – UNAC Mozambique)



Lur ereingarriaren inguruko interesa eta eskaria areagotu egin dira, zerbitzu-ondasunen prezioa ezegonkorra delako, gizakien zein ingurumenaren gaineko presioak handiagoak direlako eta elikaduraren segurtasunaren egoera gero eta kezagarriagoa delako. Argi eta garbi dago interes eta eskari horiek are gehiago handituko direla, baina, batez ere, garapen-bidean dauden herrialdeetan (Deininger et al, 2010).

2007-2008an elikagaien prezioa igo egin zela egiaztatu zenean, munduko mila milioika lagun bizibideak eta elikaduraren segurtasuna jarri ziren arriskuan, behar besteko janaria bermatzea eguneroko erronka zenean (Mousseau, 2010).

Prezioen igoera horren ondorioz, nazio aberatsenak eta inbertsiogile pribatuak lur-azalera zabalak erosi edo alokatu dituzte herrialde txiroagoetan eta garapen-bidean dauden herrialdeetan.

Gaur egun, nahikoa fenomeno orokorra da, interes

atzeritarrak daudelako eskarian, edo, 2006tik 2009ko erdialdera arte, 37-49 milioi hektarea lur ereingari daudelako erosketa-prozesupean (Mousseau, 2010).

“Land grab” edo lurren arpilaketan, elikaduraren arloko segurtasunik ez duten nazio aberatsagoek lur-azalera zabalak alokatu edo erosten dizkiete herrialde txiroagoei eta garapen-bidean dauden herrialdeei, esportaziorako elikagaiak ekoizteko asmoz (Shepard eta Mittal, 2009).

Zenbait faktorek eragin handia dute lur ereingarriaren eskari handi horretan, eta, euren artean, herrialde inbertsiogileek elikaduraren segurtasunaren arloan dituzten arazoak nabarmendu behar dira. Hori dela eta, euren laguntzaren eta inbertsioaren helburuak zein izango diren ere zehazten dute. Elikagaiak hornitzeko katean, ziurgabetasunak eta mugak sortzen dira, ur eta lur ereingari gutxi egotean nekazaritzako ekoizpena murriztu egiten delako, elikagaiak biltegitratzeko eta garraiatzeko arazo asko daudelako eta agroerregaien ekoizpena hedatu egin



#### <sup>1</sup> IKERKETAREN DATU TEKNIKOAK

Os Senhores da Terra - Aurreko Azterketa Lurren Arpilaketaren gertakariari buruz Mozambiken

Argitalpena: Justiça Ambiental eta UNAC.

Parte hartzaileak: Nilza Matavel, Silvia Dolores eta Vanessa Cabanelas

Ikerketa Juridikoa: Nadja Gomes

Lantaldea : Boaventura Monjane, Eugénio Buquine, Isabelle dos Reis, Jeremias Vunjanhe, Rose de Jong , Sandra Janela e Tina Valjanen

Koordinazioa: Anabela Lemos

Maputo 2011ko martxoan

delako. Laborantza-mota hori, hain zuzen ere, nekazaritzako ekoizpenaren lehiakide nagusia da, ura eta lur ereingarria ere behar dituelako. Urbanizazio-tasa gero eta handiagoa denez eta gure dieta aldatu egin denez, elikagaien eskari orokorra ere gehitu egin da. Modu berean, oso kontuan hartu behar da eragiketa horiek irabazi-asmodun negozioa egiteko aukera eskaintzen dutela.

Lur ereingarriaren eskari ikaragarri hori sustatu dezaketen beste faktore batzuen artean, garapen-bidean dauden karbono-merkatuak aipatu behar ditugu. Badi-rudi lurra erosteko zenbait negozio egiteko orduan, oso kontuan hartu dutela epe luzeari begira lurra bera are gehiago birbaloratuko dela.

Askotan, “lur eskuragarria” edo “baztertua” terminoak erabili dira, lur horiek inbertsiogileei zergatik esleitzen zaizkien azaltzeko, inolako funtsezko azalpenik eskaini gabe (Cotula et al, 2009).

Afrikan, oro har, urte gutxi eta 99 urte arteko epealdi zehatzetarako esleitzen da lurra, saldu beharrean. Gobernuak zeresan handia dute luraren esleipenean, Afrikako zenbait herrialdetan estatuarena delako (FIAN International, 2010).



Giza eskubideetan, justizian, bakean eta iraunkortasunean oinarritutako ikuspegitik, joera berri hori ez da inoiz irtenbide egokia izango, hau da, atzerriko inbertsiogileek beste herrialde batzuetako lurra eta baliabideak monopolizatzea, bertako jendeak gero eta zailtasun handiagoak dituenetik elikatzeko orduan (FIAN International, 2010).

Lurren arpilaketari buruz egin berri duen azterketan, Munduko Bankuak DUATEko<sup>2</sup> eskaera guztiak ikertu ditu, baita 2004-2009an Mozambiken nekazaritzarako, abeltzaintzarako, landaketetarako eta ehiza-erreserbetarako eta 1.000 hektareatik gorako lur-azaleretarako jaulkitako DUAT guztiak ere. Egiaztatu egin du epealdi horretan Mozambiken 2,7 milioi hektarea lur esleitu zitza

<sup>2</sup> Erabilpen Eskubidea eta Lurren Ustiapena (portugesez DUAT)





izkiela inbertsiogileei, baina esleitutako lur horren %50 inguru ez zela oso-osorik erabili edo, besterik gabe, ez zela ezertarako ere erabili. Era berean, adierazi egin behar da epealdi berean Tanzanian 50 mila hektarea baino gutxiago transferitu zitzaizkiela inbertsiogileei, bertan herrixken bidez lortzen direlako lurrerako eskubideak. Azterketa beraren arabera, oso-oso kontuan hartu behar da zenbait eragilek barne-mailako zeresana dutela lur-politiketan eta politika horien inguruko politiketan eta orain arte oso mozkin gutxi lortu direla. Azterketan bertan iradokitzen denez, politikek eragin zuzena dute lurraren esleipenerako prozesuaren hedapenean eta ezauzgarrietan, alokatzen denean, saltzen denean edo beste edozein eratako transferentzia egiten denean. Gainera, nabarmendu egiten du ahulezia handiak daudela lurrari buruzko informazioa kudeatzeko eta instituzionalizatzeko orduan. Lur-eskaria handitu berri egin dela egiaztatzen ahal izan duten zenbait herrialdetan, ageri-agerikoa da proposamenen azterketa eta hautaketa ahulak direla eta, horren ondorioz, behar besteko eginbideak egin gabe onartzen direla proiektuak. Era berean, aipatu egin behar da erantzukizun gainjarriak dituzten erakundeen arteko lehiak daudela, prozesu horiek isilpean garatzen direla eta, horren ondorioz, gobernagarritasuna ahuldu egiten dela (Deininger et al, 2010).

Beraz, lurra arpilatzeko fenomenoak behar bezala aztertu beharra dago generoaren ikuspegitik. Horrela, bada, benetan ulertu ahal izango da nolako eragina duen bere dimentsio guztietan. Zeregin sozial, eskubide eta aukera desberdinak dituzten gizon eta emakumeen artean daukan eragina desberdina izango da. Afrikako herrialde gehienetan, emakumeak funtsezkoak dira biziraupenerako nekazaritzan, elikaduraren segurtasunean eta familiaren nutrizioan; eta, are gehiago, landa-inguruneetan. Hori dela eta, fenomeno horren eraginen azterketak genero-arloko gaiak nabarmendu behar dituzte ezinbestean (Behrman et al, 2011).

Amerika Latinoan, emakumeek elikagaien %45 ekoizten dituzte; Asian, %65; eta, Hegoaldeko Afrikan, %80. Hala ere, lurraren %1en jabeak ere ez dira guztira. Hegoaldeko Afrikan, emakumeek 40 mila milioi ordu inguru erabiltzen dituzte urtean ura biltzeko (Women's Earth Alliance, 2011).





Testuingurua





Mozanbiketik munduko herrialde txiroenetakoa omen da. 2009ko edizioan Giza Garapenaren Indizearen arabera (GGI), herrialde hau 172. postuan dago kontuan hartutako 182 herrialdeen artean, eta bere GGI 0,402.39koa da. Biztanleen batez besteko bizi-itzaropena 52 urtekoa baino ez da. Mozanbiketako txirotasuna zertxobait murrizte dela egiaztatu denez, badirudi Milurteko Garapen Helburuak (MGH) bete ahal izango dituela, hau da, 2015. urtera arte txirotasunaren atalasearen azpitik bizi diren lagunen kopurua erdira murriztea. Edonola ere, oraindik ere Mozanbiketako biztanleen %45ek eguneko dolar bat baino gutxiago dute bizitzeko, eta ez dute oinarritzako zerbitzu hauek eskuratzeko aukerarik: edateko ura, eskolak eta osasun-laguntza (FIAN Internacional, 2010; Suárez eta Borrás Jr., 2010).

Txirotasunak, gainera, lotura estua dauka herrialdeko kolonizazioaren eta gerra zibilaren historiarekin.

Horrez gain, 1991-1992an, Mozanbiketik XX. mendeko lehorte latzenetakoa gertatu zenez, biztanleak oso egoera ahulean geratu ziren. Orduz geroztik garapen eta hazkuntza ekonomikoak egon direla egiaztatu bada ere, herrialdea nazioarteko fondoen menpe dago oraindik, Estatuko Aurrekontu Orokorraren %50 inguru kanpoko laguntzetatik dator-eta (Suárez eta Borrás Jr., 2010).

Zenbait adierazle sozial Mozanbiketako biztanleen ahuleziaren adierazgarri dira. Euren artean, heriotza-tasa nabarmendu behar da, herrialdeko heriotzen %56 inguru malariaren (%29) eta GIB-HIEsen (%27) ondorioz

gertatzen dira-eta. Kalkuluen arabera, gainera, GIB dute biztanleen ehunekoa 1998ko %8,3tik 2007ko %16ra igo da (gazteen eta helduen artean). Zenbaki horiek are larriagoak dira, generoen arabera banatzen direnean, emakumeen kutsapen-intzidentzia gizonena baino hiru aldiz handiagoa delako (INE, 2010).

Mozanbiketako garapenak lotura sakona dauka nekazaritzaren sektorearekin, biztanleen %64 inguru landa-ingurunean bizi direlako, eta, eurretatik, %55 txirotasunaren atalasearen azpitik bizi dira. Landa-inguruneetan, nekazaritza errenta-iturri nagusia da, baina, ekoizpen urria nagusi denez, familientzat oso zaila da elikadurako premiei aurre egitea. Horrez gain, klima-aldaketaren eraginpean ere badaude. Uholdeen edo lehorteen ondorioz, nekazariak talde ahulenen artean daude elikaduraren segurtasunik ezari dagokionez, errenta sortzeko aukera gutxi dituztelako nekazaritzaren arlotik kanpo (Coughlin, 2006, FIAN Internacional, 2010; Suárez eta Borrás Jr., 2010).

Mozanbiketako Nutrizio eta Elikaduraren Segurtasunerako Idazkaritza Teknikoaren arabera (SETSAN), Mozanbiketako familien %35 inguru inolako elikadura-segurtasunik gabe bizi da etengabe, eta egoera hori are larriago da honako probintzia hauetan: Zambezia (%35,6), Tete (%34,6), Maputo (%34,4) eta Inhambane (%29,5) (FIAN Internacional, 2010; Suárez eta Borrás Jr., 2010).

Herrialdeko nutrizio eta elikaduraren segurtasunean eragin handia izan zuten 2005eko zein 2008ko honda-



mendi naturalek, eta egiaztatu egin da are txarragoa dela gaur egun, lehengaien prezioak gora egin duelako.

Lurraldearen %5,6 lur ereingarria da Mozanbiken, eta, lur horretatik, %2,6 urezaketaren eremua da.

Mozanbikoko lurra edukitzeko egituraren jabetza txikia da nagusi: nekazaritzako ustiategi guztien %99,6 familia nekazarienak dira, eta ereindako azalera guztia-



ren %95,19 kontrolatzen dute. Datu berrien arabera, 2008an 5 milioi hektarea inguru erabiltzen diren nekazaritzako ekoizpenerako. Herrialdeko biztanleen %80k nekazaritzan lan egiten dute, baina nekazaritzak BPGn daukan ekarpena %25ekoa da, gutxi gorabehera; eta esportazio guztien %16 (FIAN Internacional, 2010; Suárez eta Borrás Jr., 2010).

Emakumeek beste erronka bati ere aurre egin behar diote, hezkuntza eskuratzeko aukera gutxiago dituztelako eta, horren ondorioz, lurra lantzeko jakintza gutxiago dituztelako. Osasun-instalazioetara joatea ere oso zaila denez, umeen heriotza-tasa ere oso handia da. Nahiz eta Konstituzioaren eta Lurrei buruzko Legearen arabera, gizonak eta emakumeak eskubide berberak dituzten eta lurra eskuratzeko aukera bera dute, askotan emakumeak ez dakite hori horrela dela eta ez dituzte lurra eskuratzeko eskubide horiek erabiltzen. Oro har, landa-ingurune biziaren biztanleak isolatuta bizi dira, herrialdean behar beste azpiegitura ez daudelako. Hori dela eta, oso zaila da merkaturara iristea eta ondasunak zein zerbitzuak eskuratzea. Egiaztatu egin da egoitza administratiboetatik hurbilen dauden taldeek errazago eskuratzen dituztela zerbitzuak; hezkuntza, osasuna eta merkatuak, esaterako. Eremu isolatuagoetan bizi diren biztanleak, ordea, “erabat baztertua geratu dira” (FIAN Internacional, 2010; Suárez eta Borrás Jr., 2010).

Azterketa honetan, giza eskubideen ikuspegia hartzen da kontuan, lurren arpilaketa aztertzeko orduan. Horretarako, honako hauxe lehenesten da: elikadurarako eskubidea, bizi-eredu egokirako eskubidea, baliabideak eskuratzeko eskubidea, lanerako eskubidea, informaziorako eskubidea eta partaidetza publikorako eskubidea. Oso garrantzitsua da ulertzea enpresek, estatuak ez bezala, ez dutela inolako betebeharrak zuzenik Giza Eskubidei buruzko Nazioarteko Legearen aurrean. Konstituzio gehienetan, giza eskubideen inguruko betebeharrak estatuak herritarrekin daukan erantzukizuna baino ez dira. Ikuspegi horren arabera, Mozanbikoko Konstituzioko 45. artikulua interesgarriagoa izan daiteke, osasun publikoa sustatzean, ingurumena zaintzean eta ondasun publikoa zein erkidegoa babestean herritarrek gainerako herritarrekin nolako betebeharrak dituzten adierazten delako artikulua horretan (beraz, enpresenak eurenak ere aipa-





tzen dira bertan). Zoritxarrez, eskubide horiek oso zehatzak ez direnez, nekez aldarrikatu daitezke. Gainera, Mozanbiken jurisprudentziarik ez dagoenez, oraindik ere ez da auzitegian probapean jarri nolako balioa duen betebeharrak konstituzional horrek. Nolanahi ere, giza eskubideei eta eskubide konstituzionalei buruzko nazioarteko legeria loteslea da estatuentzat. Bete-bete onetsi da estatuek giza eskubideei buruzko nazioarteko betebeharrak urratzen dituztelako, neurri egokiak hartzen ez dituztenean edo behar bestekoa egiten ez dutenean, estatukoak ez diren eragileek sorrarazitako kalteak prebenitzeko, zigortzeko, ikertzeko edo konpontzeko. Beraz, “babesteko betebeharra” urratzen dute. Mozanbikoko Konstituzioak berez urratu daitezkeen giza eskubide guztiak bermatzen ez baditu ere, estatuak modu berean txertatu behar du Giza Eskubideei buruzko Nazioarteko Legea Mozanbikoko lege-sisteman. Mozanbikoko Konstituzioko 18. artikuluan, zuzenbide zibileko sistema ezartzen da, eta, bertan, argi eta garbi adierazten da nazioartean giza eskubideak babesteko eta errespetatzeko onetsitako betebeharra nola txertatu behar den. Nazioarteko itunak edo nazioarteko beste lege-tresna batzuk berretsi eta argitaratu egiten direnean, zuzenean sartzen dira indarrean ordenamendu juridiko nazionalen, Konstituzioan bertan xedatzen den bezala. Nolabaiteko eztabaida sortu da Konstituzioko 17. (2) artikulua interpretazioaren inguruan: “Mozanbikoko Errepublikak Nazio Batuen Erakundeko Gutuneko eta Afrikako Batasuneko Gutuneko printzipioak onartu, babestu eta ezarri egiten ditu”. Oro har, Mozanbikoko auzitegiak ez dituzte oraindik irmotasunez probapean jarri, nazioarteko zenbait tresna ezartzeko eta interpretatzeko orduan. Horrez gain, nazioarteko zuzenbideko printzipio asko nabarmen garatu behar dira Mozanbikoko testuinguruan.

Nazioartean, giza eskubideetako betebeharren bete-arazpena urria da, edo judizioz kanpoko mekanismoetara mugatzen da. Bete-arazpenerako oztopo berriak sortu dira, Mozanbiketik ez duelako Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna berretsi eta ez duelako Eskubide Zibil eta Politikoei buruzko Nazioarteko Itunaren inguruko Borondatezko Lehen Protokoloa sinatu. Azken protokolo horretan, hirugarrenen abusuei aurre egiteko babesik ez dutenentzako aldarrikapen-mekanis-



moa azaltzen denez, oso-oso onuragarria izango litzateke lurren arpilaketako biktimentzat.

Mozanbikoko eskala handiko inbertsio gehienak atzerriko enpresek egin dituzte. Egia esan, ez da batere erraza kudeatzea enpresa horien sorterriko estatuak nolako erantzukizuna daukan lurren arpilaketa horretan. Ez dago lurraldez kanpoko betebeharrei buruzko nazioarteko adostasunik, estatuak estatuak ez diren eragileen urraketari aurre egiteko duten betebeharrari dagokionez.

Apurka-apurka Giza Eskubideen Europako Auzitegian garatutako jurisprudenziak atzeratu egin du estatuak hirugarrenek kanpoan egindako egitateetan daukan erantzukizuna.

Horrez gain, beste arazo bat ere sortu daiteke kasua auzitegira eraman baino lehen, eta lotura estua dauka Mozanbiken justizia lortzeko daukaten aukerarekin. Izan ere, gizarte zibilak ez du inolako esperientziarik prozesu juridikoetan, eta, oro har, tokian tokiko erkidegoek ez dakite zein diren euren eskubideak. Oztopo horiek ez ezik, kasu horiek auzitegira eramateko legezko oztopoak ere egon daitezke. Konstituzioko 18. artikuluan, “herri-ekin-tzarako” eskubidea aurreikusten denez, gizabanakoei eta herritarren taldeek eskubide osoa dute, kalte-ordainak eskatzeko eta honako haxe defendatzeko: osasun publikoa, kontsumitzaileen eskubideak, ingurumenaren babesa, ondare kulturala eta ondasun publikoak.

Nolanahi ere, 2004. urtetik, ez dute oraindik xedapen horretako legeriaren ezarpena onartu. Hori dela eta, oraindik ere ez dago batere argi zein den eskubide horren egoera. 18. artikulua indarrean sartzen denean, herri-ekin-tza oso tresna erabilgarria izan daiteke, enpresen aurkako prozesuak abian jartzeko. Horrela, bada, derri-gorrezkoa da legeria hori ahalik eta lasterren onartzea, eskubide konstituzional hori erabili ahal izateko.

Bestetik, lurren arpilaketari aurre egiteko orduan, oso aukera ona izango litzateke enpresaren sorterrian erantzukizun zibila ezarri ahal izatea. Ageriko oztopo finantzarioak eta prozesuan parte hartzen duten alderdien baliabideen artean dauden desberdintasunak ez ezik, legezko oztopo asko ere badaude.

Neurri handi batean, sorterriko barne-legeriaren eraginpean daude jurisdikzioaren instituzionalizazioa eta kasuaren onargarritasuna zein arrakasta. Europar Bata-





suneko Araudiak auzitegira jotzeko aukera erraztu die estatu kideei, eta, batez ere, Britainia Handiko lege-sistemak egiaztatu egin du oso-oso erabilgarria dela alde horretatik. Kanpoan erreklamazioaren bat egiten dutenean, sarritan biktimek oztopo handiak gainditu behar badituzte ere, argi eta garbi dago oso-oso abantailatsua dela aldarrikapena egitea. Ezarpen-mekanismo eraginkorrenak sorterrietan daude indarrean, eta, arlo politikoari begira, kasua hain nekeza ez denez, ez da independentzia judizialaren aurkakoa. Horrez gain, sistema horri esker, ez da eredu bikoitzik egongo enpresa atzeritarren eta nazionalen eragiketen artean, baina, batez ere, gizarte-erantzukizunari begira dituzten politika korporatiboetan euren eragiketa guztietan ezarri daitezkeela adierazten badute.

Herrialde garatuak zentzudunenak izan behar dira horrelako egoeretan, euren erantzukizun-maila handia delako, giza eskubideen esparruan euren konpromisopean hartu dituzten hainbat hitzarmen betetzeko orduan.

Bestela, euren sinesgarritasunaren kalterako jokatzen dute, giza duintasunaren unibertsaltasunaren argudioa behin eta berriro aipatzen dutenean eta hirugarren munduko herrialdeen jarduketek ilundutako giza eskubideen historiala kritikatzeko dutenean.

Eskubideez hitz egitean, gaur egungo egoeraren inguruko kontzientzia iratzartzen da, ageri-agerikoa da biktimek justiziara jotzeko eta lortzeko zailtasunak dituztela eta tentsio handia dago negozioren garapenaren eta giza eskubideen errespetuaren artean. Azkenik, onartu ere egin behar dugu oraindik ere gobernazioko errakuntzek bere horretan dirautela kasu gehienetan.

Hain zuzen ere, azterketa hori egin zuten, Nekazarien Batasun Nazionalak (UNAC) bertako kideen eskubideak eta interesak defendatu nahi zituelako. Horretarako, nekazaritza eta garapen integratua sustatu nahi zituen, nekazariarentzako justizia soziala eta bizi-baldintza hobekak lortzeko. Lurrak arpilatzearen fenomeno globalari behar bezala erantzun ahal izateko, UNAC Ingurumen Justiziarerkin jarri zen harremanetan, Mozambikeko lurren arpilaketari buruzko azterketa elkarrekin garatzeko asmoz. Bertan, hain zuzen ere, oinarriko informazioa eta Mozambikeko nekazarien lekukotasuna zein iritzia bilduko zuten.





Ondorioak

Lurrak arpilatzeneko fenomeno oso hedatuta dago Mozambiken, akats asko daudelako Lurra Erabiltzeko eta Ustiatzeko Eskubideko esleipen-prozesu guztian. Izan ere, inbertsiogileen onerako eta landa-ingurunecko erkidegoen kalterako dela esan daiteke.

Besteak beste, honako hauek dira lurrak arpilatzeneko fenomenoan eragina duten faktoreak: erkidegoek ez dakite ondo zein diren euren eskubideak eta ez dakite ezer Lurrei buruzko Legeari buruz, tokian tokiko gobernuen ahulezia instituzionala handia da, agintariak eta erkidegoetako liderrak ustelak dira eta ez dago lurra edukitzeko prozesu formalen onuren inguruko inolako kontzientziarik. Fenomeno horretan, gainera, oso astungarria da nolako ahulezia sorrarazten duten erkidego horien txirotasunaren gabezia bereizgarri ugariak. Hori dela eta, erraz-erraz engainatzen dituzte, euren oinarriko bizi-baldintzek hobera egingo dutela agintzean.

Nekazaritza bizibide nagusia da elkarriketatutako erkidegoetan; eta, ondoren, abeltzaintza. Bi jarduerak, beraz, oso-oso menpetasun handia dute eskuragarri dauden lur emankorrekin eta urarekin. Horregatik, erkidego horien eskubideak eta interesak behar bezala zaindu behar dira galdeketa publikorako eta birkokapenerako prozesuetan.

Landa-ingurunecko erkidegoek menpetasun handia dute ibaiekin, ura hornitzeko iturri nagusia da-eta. Hori dela eta, aztertutako proiektu gehienak baliabide horren alboan daude kokatuta. Proiektu handiek gero eta eremu gehiago okupatuko dituztenez, argi dago erkidego horien gaineko eragina handia izango dela ur eskuragarriari dagokionez. Horren ondorioz, euren bizi-baldintzen txarrera

egingo dute.

Azterketa honetan zehar, egiaztatu egin ahal izan da auzo-lurraren edukitza-erregistroen kopurua oso urria dela, neurri handi batean ez dutelako uste lurraren gaineko titularitatea agiri idatziaren bidez frogatu behar dutenik. Izan ere, ohituraren araberako jarduketei erreparatu gero, lur tradizionala okupatzen duten toki-erkidegoek lurra erabiltzeko eta ustiatzeko eskubidea lortzen dute inolako formalitate gehigarriarik egin gabe.

Hona hemen lurraren edukitza-erregistro gutxi egotecko arrazoiak: ez dago Lurrei buruzko Legearen gaineko informaziorik; ez da lurren erabilera eta ustiapenerako erregistroa formalizatzen, nahiz eta erregistro hori oso garrantzitsua izan, gaur egun proiektu handiak lurra bete-betean eskatzen eta okupatzen ari direla kontuan hartuta; jendeak ez daki ondo nolako zeregina eta garrantzia dituzten erkidegoko kideek auzo-galdeketerako prozesuan; eta agintariek larregikeriaz eta euren onurarako erabiltzen dute boterea. Hori dela eta, erkidego horiek are ahulagoak dira, proiektu handiak ezartzeko orduan.

Lurraren edukitza-erregistro bat ere ez dago emakumeen izenean, nahiz eta euren zeregina funtsezkoa den biziraupen-nekazaritzan, elikaduraren segurtasunean eta familiaren nutrizioan. Beraz, familia-buruak diren gizonak baino ahulagoak eta mendekoagoak dira. Hartara, emakumeek gizonen interesak defendatzen dituzten arau tradizionalen men egin behar diete, emakumeen eta familiaren interesen kalterako badira ere. Herri-galdeketerako prozesuak arduragabekeriak eta behar ez bezala egiten direnez, informaziorako eta partaidetza publikorako eskubi-





dearen aurkako urraketa larria da. Izan ere, egiaztatu egin da inbertsiogileek agindu faltsuen bidez manipulatzeko dituztela erkidegoak, eta, askotan, tokian tokiko botere-egiturak erabiltzen dituztela horretarako.

Emakumeek ez dute hitzik herri-galdeketarako prozesuan. Inork ez ditu euren interesak ordezkatzeko erkidegoko liderren aurrean. Nahiz eta herri-galdeketarako bileretan egon eta familian zein erkidegoan funtsezko eginkizuna eduki, emakumeek ez dute inolako zeresanik familiaren zein erkidegoaren interesei buruz eztabaidatzeko prozesuetan, eta gizonen hitzari nahiz iritziari egin behar diete men. Edonola ere, emakumeak eurak dira euren partaidetzarik gabe baliabideen erabilerari eta helburuari buruz hartutako erabakien ondorio kaltegarrienei aurre egin behar dietenak.

Erkidegoen eta enpresen arteko gatazka asko herri-galdeketarako prozesuan egindako aginduak ez betetzean sortu dira.

Hain zuzen ere, auzo-lurren inbasioa eta leku zein baldintza desegokietan egindako birkokapena dira arrazoi nagusiak.

Erkidegoek herri-galdeketarako bileretako aktarik ez dutenez, ezin da bertan emandako eta eztabaidatutako informazio-mota egiaztatu eta ebaluatu.

Elkarrizketatu gehienek baieztatu dutenez, inbertsiogileek ez diete inolako presiorik egin, prozesuan haien aldeko irizpena eman zezaten. Nolanahi ere, baldintzak aldatzean nolako ezinegona sortu den ikustean, badirudi erkidego horiek prozesuaren inplikazioen benetako pertzepzioerik ez zutela.

Aztertutako proiektu handi gehienak berriak dira, atzerriko inbertsiogileenak dira eta agronegozioen, turismoaren zein meatzaritzaren sektoreetan garatzen dira.

Aztertutako inbertsioak ez dira nahikoak izan, gobernuak milurteko garapen-helburuak lortzeko abian jarritako plana/xedeak lortu ahal izateko: txirotasuna murriztea, edateko ura eskuratzea eta oinarrizko saneamendua jartzea, besteak beste; hau da, garapen iraunkorra lortzea. Aitzitik, inbertsio horien ondorioz, gero eta gatazka gehiago sortu dira, eta landa-ingurunecko erkidegoen txirotasunak, gabeziak eta ahuleziak txarrerara egin dute.

Gizartean eta ingurumenean eragina izan zezakeen edo-

zein ekimenetan, euren sorterrietan giza eskubideen errespeturako estandar handienak eta partaidetza publikorako prozesu guztiak betetzen zituzten arren, egiaztatu egin da iparraldeko herrialdeetako inbertsiogileek ez zutela modu berean jokatzeko Mozanbiken.

Euren jarduketek sistema ustela elikatzen dute, eta herrialdean indarrean dauden legeen ezarpenean dauden hutsuneei ateratzen diete onura. Hori dela eta, landa-ingurunecko erkidego gehienentzat txarrak diren bizi-baldintzak larriagotzen dira. Hain zuzen ere, Chikwetii, Malonda Tree Farn eta Ntacia Forests of Zambéziako kasuak dira horren adierazgarri.

Instituzioei dagokienez, Mozanbike ez da Lurra Erabiltzeko eta Ustiatzeko Eskubidearen inguruko eskaera ugariak kudeatzeko gai. Era berean, agerikoa da proposamenak ez direla behar bezala aztertzen eta, horren ondorioz, erabaki desegokiak hartzen direla. Beraz, gobernuko instituzioek orain arte konpondu ezin izan dituzten gatazkak sortu dira.

Nazioarteko legepean atzerriko inbertsiogileek bete behar zuzenik ez badute ere, ez du esan nahi nazio-mailan erantzule zuzenak ez direnik.

Erantzukizun zibilerako mekanismoek, beraz, estatuek kasuan kasuko legeria benetan ezarri dutenean baino ez dute eraginik. Horrela, bada, giza eskubideak babesteko bete beharra betetzen dute. Mozanbiken, ordea, ez da halakorik gertatu, botere judizialeraino ere iristen den borondate politikorik ez dagoelako.

Mozanbikeko estatuak inbertsio handietan eta, batez ere, atzerriarretan nolako interes ekonomikoa daukan kontuan hartuz gero, badirudi erronka handiegia dela erantzukizun zibilerako jokabidea ezartzen saiatzea. Oro har, Mozanbikeko sistema judiziala oso-oso ahula da, politizatuta dago eta boterean dagoen alderdiaren menpe dago. Beraz, nekez egingo du enpresa boteretsuen aurka.

Hori guztiori dela eta, tokian tokiko erkidegoak Lurrei buruzko Legearen eta herri-galdeketarako prozesuen inguruan kontzientziazatzea eta trebatzea. Horretarako, argi eta garbi azaldu beharko zaie nolako informazioa eduki behar den prozesu horietan eta, ohiturako jarduketan araberak, nolako eskubide eta betebeharrak dituzten lurra erabiltzeko eta ustiatzeko eskubidedun moduan. Era berean,



behar bezala adierazi beharko zaie zeinen garrantzitsua den DUATEko titulua lortzea, gaur egungo lur-eskaria handi-handia dela kontuan hartuta. Kontzientziazio eta trebakuntzarako prozesu horretan, funtsezko informazioa ere eman beharko da; esate baterako, zein diren luraren inguruko gaietan erantzukizuna duten instituzioak. Bestetik, gatazketan zer urrats eman behar diren ere azaldu beharko zaie.

Oso garrantzitsua da tokian tokiko gobernuko agintariei eta erkidegoetako epailei Lurrei buruzko Legearen arloko prestakuntza ematea.

Bestetik, genero-arloko gaiak ere jorratu beharko dira, gizonen eta emakumeen ez dituztelako baliabideak modu berean kudeatzen eta baliabide horien galerak eragin desberdinak dituelako haiengan.

Eskala txikiko nekazaritza-ekoizpena eta biziraupen- nekazaritzak sustatzeko zenbait politika benetan ezarri

behar dira, eta bermatu egin behar da nekazaritzaren emankortasuna eta produktuen banaketa hobetzeko neurri zehatzak hartuko direla.

Horrez gain, herri-galdeketarako prozesuetan, topaketa horietako akta sinatuak eskatuko dira, eta erkidegoei egindako agindu guztien xehetasunak azaltzen dituzten kontratuak sinatuak dira. Era berean, agindu horiek betetzeko epeak ere zehaztuko dira, baita aginduok bete ezean proposatutako zehapenak ere.

Hasiera-hasieratik, erkidegoak inplikatu behar dira euren birkokapenean eragina izan dezakeen edozein prozesutan: lekua aukeratzea, ezarri beharreko azpiegituramotak zehaztea... Gainera, inplikazio hori loteslea izan beharko da, erkidegoetako liderren edo boteretsuen ustelkeria eta larregizko boterea saihesteko, birkokapenerako lekua eta baldintzak lehengoak baino hobeak izango direla bermatzeko, euren bizimodua errespetatzeko eta, azken batean, euren iraunkortasuna ziurtatzeko.

Hori dela eta, beste edozein inbertsio berritarako arlo eskuragarriak zehaztu beharko dira, argi eta garbi azaldu beharko da zein diren auzo-eremuak eta inbertsio txiki zein ertainen arteko aldeak ezarriko dira.

Bestetik, behar besteko mekanismoak ezarriko dira, tokian tokiko inbertsioen ezarpeneko prozesu osoaren monitorizazioa eraginkorragoa izateko, tokian tokiko erkidegoekin elkarreraginean egoteko eta etorkizuneko gatazkek ekiditeko.

Estatuak doako laguntza juridikoa bermatu beharko die erkidegoei, lurren edo beste baliabide batzuen ondorioz erkidegoen eta inbertsiogileen artean gatazkek sortzen direnean. Horrela, bada, ziurtatu egingo da erkidegoen eskubideak eta interesak behar bezala errespetatzen direla.

Horrez gain, oso egokia izango litzateke kontzientziaziorako kanpainak sustatzea, lurren arpilaketak salatzeko.

Nahiz eta legearen arabera beharrezkoa izan ez, auzo-lurren zatien legalizazioa bultzatu beharra dago, segurtasun juridiko handiagoa ematen duelako.

Azkenik, estatuak ez die inbertsio berriei DUAT gehiago jaulki behar, harik eta proposamenean azterketarako eta onartutako inbertsioen monitorizaziorako gaitasun tekniko zein instituzionala ezarri arte eta lehendik dauden lur-gatazka guztiak konpondu arte.











[www.derechoshumanosdelcampesinado.org](http://www.derechoshumanosdelcampesinado.org)

[www.mundubat.org](http://www.mundubat.org)

[www.facebook.com/Mundubat](https://www.facebook.com/Mundubat)



Diru-laguntza:

